

MUNIBE (Ciencias Naturales)	41	63-73	SAN SEBASTIAN	1989-1990	ISSN 0027 - 3414
-----------------------------	----	-------	---------------	-----------	------------------

Recibido: 21-VI-89

# Leitzako failari (Nafarroa) loturiko arroka metamorfiko prealpetarren petrologia

Petrology of the pre-alpine metamorphic rocks associated to the Leiza fault (Navarra)

**GAKO ITZAK:** Petroloqia, Arroka metamorfikoak, Faila, Leiza, Pirinioak.

**KEY WORDS:** Petrology, Metamorphic rocks, Fault, Leiza, Pyrenees.

**Miren S. MENDIA ARANGUREN\***

## LABURPENA

Leitzako Failaren zehar agertzen diren arroka metamorfiko prealpetarrak deskribatzen dira eta Pirinioan dauden arroka baliokideekin konparatzen dira. Analisi kimikoen bitartez metamorfismoaren izaera eta arroka hauen jatorria ezagutzen dira.

## RESUMEN

PETROLOGIA DE LAS ROCAS METAMORFICAS PREALPINAS ASOCIADAS A LA FALLA DE LEIZA (NAVARRA).

Se describen las rocas metamórficas prealpinas que aparecen en forma de escamas a lo largo de la Falla de Leiza y se comparan con sus equivalentes en la Cadena Pirenaica. Mediante análisis químicos se establece el tipo de metamorfismo y el origen de estas rocas.

## ABSTRACT

Some pre-Alpine metamorphic rocks are present along the Leiza Fault. These materials are described and compared to similar rocks that occur along the Pyrenees Belt. The type of metamorphism and the origin of these rocks are established using chemical analysis.

## SARRERA

Faila Ipar-Pirinaikoa oso apurtune garrantzitsua dugu, Hertziniar adinekoak, eta orogenia Alpetarrean berrirojokatu duena. Faila Ipar-Pirinaiakoari loturik eta faila honen iparraldean kokatzen den Zona Ipar-Pirinaiokoan, zenbait ezkata tektoniko eta mazizo metamorfiko ageri dira, gradu altuko metamorfismoa eta Hertziniar adina duten arrokak agertzen direirik. Gradu altuko arroka hauek batzutan Aipetar adineko metamorfismoa (temperatura altukoa/presio baxukoa) agertzen dute gainezarria (ALBAREDE & MICHAUD VITRAC, 1978; AZAMBRE & RAVIER, 1978; CHOKROUNE, 1970, 1974; MULLER & ROGER, 1977; POSTAIRE, 1982; THUIZART et al., 1985, VIELZEUF, 1984). Mazizo hauetan normalak izaten dira granulitak eta Iherzolitak ere. Aipaturiko gradu altuko material hauetako gehienak Pirinioetako iparraldean agertzen dira, hau da, Frantzian, baina Pirinioetako mendebaldeko azken agermendua Leitzako Faila delakoan


dago (1. Irudia) (LAMARE, 1936; WALGENWITZ, 1976; LLANOS, 1980; EGUILUZ et al. 1982).

Leitzako Failan zehar laginketa egin da eta material metamorfiko prealpetarrak aurkitu dira, tamainu aldakorrekotzat agermenduak eraturik, normalean ehundaka metro baino txikiagoak izanik.

Ikerketa honen helburu nagusiak hauetek izan dira: Leitzako Failari asoziaturik dauden gradu altuko arroken petrografía ezagutzea, eta metamorfismoaren baldintzak eta eboluzioa zehaztea, Faila Ipar-Pirinaiokoan eta zona Ipar-Pirinaiokoan azaltzen diren arrokekin konparatzeko eta azken batetan faila bi hauetek erlaziona daitezkeen jakiteko.

Ikerketa petrologiko klasikoa egin da, hau da, esku-laginekoa eta mikroskopikoa. Mineralen analisi kimikoak mikrosonda elektronikoaren bitartez egin dira, Clermont-Ferrand-eko Unibertsitatean, guztira gutxi gorabehera 250 analisi kimiko egin direlarik. Hala ere, arroka osoaren elementu nagusiak, trazak eta lur arraroen analisi kimikoak egin dira, ICP metodoen bidez, Nancy-ko CRPG-an.

\* Euskal Herriko Unibertsitatea. Landare-Biología eta Ekologia Saia. Zientzi Fakultatea. Aptda 644. 48080 BILBAO.



1. Irudia: Leitzako Failareneskualdeko mapa geologikoa. (MARTINEZ-TORRES et al.ek aldatua, in press.) FIP Faila Ipar-Pirinaikoa, CV Cinco Villas, L: Labourd, Al: Aldudes. 1: Keuper, 2: Jurasikoa, 3: Purbeck-Weald eta Urgoaptikoa, 4: Albiarra, 5: Goi-Kretazikoa.

## PETROLOGIA

Zigatik Aresoraino (I. Irudia), metamorfismo prealpetarraren nabaritasunak dituzten jasotako arroka-motak hauek dira:

1) granulita azidoak, 2) granulita basikoak, 3) migmatitak, 4) arroka ultramafikoak, lherzolitak batz ere, 5) filitak eta gradu baxuko eskistoak, eta 6) ortogneisak eta arroka metamorfiko koartzofeldespatikoak. Azken biak ez dira kontutan izan lan honetan, ez bait dago oso argi metamorfismo prealpetarra pairatu duten edo ez.

Ondoren lehenengo 4 material hauen petrografia, mineralogia, ebuluzio metamorfikoa, eta arroka osoaren analisi kimikoa ikusiko da, arroka-mota bakoitzaren barruan.

### 1. GRANULITA AZIDOAK

Arroka hauak Zigatik, gutxi gora behera 400 m-tara iparrekialdera, agertzen dira (1 Irudia).

Deformazio plastiko nabaria aurkezten dute, biotik orientaturik daudelako eta granateak luzaturik; hala ere, feldespato eta koartzoz joriak diren bandak beste banda ilunagoekin (ferromagnesianoz aberatsak) tartekaturik azaltzen dira, beraz foliazio milonitikoa erakusten dute. Deformazio honen ondoren kataklasi fase bat gertatzen da, eskosititate berri-

rik garatzen ez delarik eta mineralak apurtzen direlarik. Mikroskopioan ehundura granoblastikoa oso orientatua, blastomilonitikoa, aurkezten dute (1. Argazkia). Kasu batzutan soilik, ehundura hau granoblastikoa ia poligonala izan daiteke.

Koartzoak orokorrean extintzio ondulantea aurkezten du. Granatea frakturatura eta orientatuta azaltzen da askotan (1. Argazkia), almandinikoa da eta alderantzizko zonazio ahula aurkezten du, hots, ertzetara Mn-z aberasten da. Zonazio-mota hau ebuluzio erretromorfikoarekin erlaziona daiteke (HOLLISTER, 1966, ATHERTON, 1968, GRANT & WEIBLEN, 1971, e.a.). Granatearen batezbesteko konposizio kimikoa gunetarako  $\text{Alm}_{62.3}$   $\text{Pir}_{19.3}$   $\text{Gros}_{14.6}$   $\text{Esp}_{3.8}$  da eta  $\text{Alm}_{64.4}$   $\text{Pir}_{17.2}$   $\text{Gros}_{14.6}$   $\text{Esp}_{3.7}$  ertzetarako (II taula). Biotita bi modutara azaltzen da: primarioa kink-bands moduan, konposizio flogopitikoa duena (Ti elementuan aberatsa) eta sekundarioa, granateen hausturaren azaltzen dena, konposizio biotitikoa s. str. dueña (Mg-an aberatsa) (1. Argazkia). Kordierita, biotita sekundarioarekin batera, azaltzen da asoziazio sinplektitikoakeratzugranatearen inguruan. Plagioklasa azidoa (oligoklasa) eta feldespato potasiko pertitikoa, serizitara alteraturik egoten dira. Aipatzeko da espinela eta errutiloaren presentzia, bi mineral hauek duten garrantzi petrologikoagatik. Granatearen barne agertzen dira eta errutiloaren kasuan matrizatik sakabanatua ere.

## Eboluzio metamorfikoa

Arroka hauek aurkezten duten paragenesi prima-rioa hurrengo mineralen asoziazioaz definitzen da: Plagioklasa-feldespato-granate-biotita I-errutilo-espinela temperatura baxuko granuliten fazieari dago-kiona (biotita egonkorra) eta baldintza dinamikotan eratzen dena. Ondoren granate-feldespato potasiko parearen desegonkortasuna gertatuko litzateke, baldintza estatikotan. P baxuko asoziazio granulitikoa emanik, kordieritaren eraketarekin (asoziazio kinzi-gitikoa), hurrengo erreakzioaren bitartez:

Lagina	1a	1b	C10	Z10C	BL-12	2
SiO <sub>2</sub>	64.23	59.33	45.44	45.75	70.67	33.35
Al <sub>2</sub> O <sub>3</sub>	16.32	16.81	21.46	13.16	15.56	2.49
Fe <sub>2</sub> O <sub>3</sub>	0.74	1.28	4.71	5.12	0.36	3.91
FeO	4.54	6.69	7.09	7.42	2.65	3.21
MgO	2.75	3.82	2.83	7.17	1.11	27.01
CaO	2.40	2.26	6.51	14.89	1.27	10.14
Na <sub>2</sub> O	4.79	4.58	3.90	0.16	3.99	-
K <sub>2</sub> O	1.59	1.80	2.94	0.41	2.07	0.04
TiO <sub>2</sub>	1.02	1.23	1.65	1.03	0.41	0.17
MnO	0.11	0.19	0.29	0.11	0.02	0.08
P <sub>2</sub> O <sub>5</sub>	0.09	0.09	0.89	0.30	0.26	0.05
p.f	1.27	0.78	1.54	2.61	1.83	18.11
Guztira...	99.85	98.86	99.31	98.19	100.20	98.56
Ba	453	518	102	133	331	19
Co	47	47	39	74	40	92
Cr	107	157	21	700	43	1919
Cu	11	10	<10	19	< 10	<10
Ni	71	69	35	191	42	1524
Sr	281	265	306	536	267	332
Y	160	217	137	214	72	97
Rb	35	47	49	< 10	61	< 10
La	39.47	32.87	5.08			
Nd	40.23	45.64	8.55			
Eu	1.14	2.95	1.64			
Dy	6.96	16.95	3.68			
Yb	4.46	11.49	2.26			
Ce	79.62	17.01	12.26			
Sm	8.29	12.21	3.14			
Gd	7.04	13.45	3.59			
Er	3.99	10.04	2.10			
Lu	0.64	1.68	0.33			
Y	47.01	120.43	24.67			
Nb		19.14	11.24			
Zr		287.39	59.55			

1a,1b: granulita azidoak, C10, Z10c: granulita basikoak; BL-12: migmatitak, 2: Iherzolitak

Taula: ikertutako arroken konposizio kimikoak

Granatea + Feldespato K + H<sub>2</sub>O = Biotita II + Kordierita + Koartz.


Azkenik, erretromorfosia jazoko litzateke eskis-toberdeetako faziean kataklasifasearekin batera, minerales sekundarioen garapenarekin, klorita eta seri-zita alegia.

## Geokimika


Analisi kimikoek eta mineralogia aditzera ematen dutenez, granulita azidoak konposaketa grano-dioritikoa s.l. zuen protolito igneo baten birkristalizazioagatikeratudira (1.Taulan eta 2. Irudia). Transizio elementuak (Co, Cr, Ni eta V) eta Ba-a kantitate nahiko handitan agertzen dira, Bestalde, Iur arraroei (REE) dagokienez Eu elementuan anomalia negati-boa ikusten da eta Iur arraro astunak (HREE) frak-zionaturik ez egoteak granatearen agerpena adierazten du.

## 2. GRANULITA BASIKOAK


Arroka hauek agermendu txikiak (metro batzu-takoak) osatzen dituzte, Zigatik gertu eta Zozaia de Oronoz-en (1. Irudia). Foliazio ongi garatua aurkezten dute, ferromagnesiano eta plagioklasen orienta-zio eta txandaketarekin. Mikroskopikoki ehundura granoblastiko poligonala agertzen dute puntu hiru-koitz ugariekin (2. Argazkia). Bi mota desberdin aurkitu dira hauen artean: 1) ortopiroxeno eta plagioklasa mineraletan aberatsak (2. Argazkia) eta 2) granate eta biotita mineraletan aberatsak (3. Ar-gazkia).




2. Irudia: Granuliten Iur arraroen espektroa. Zirkulo beltzak granulita azidoak (C1a), zirkulo zuriak: granulita basikoak (C10) eta irukiak: granulita basikoak (Z10c).




1. Argazkia: Biotita primarioa Bi 1 kink-bands eratzen eta granatearen (Gt) zatiak biotita sekundarioa + kordierita (Cd) multzoaz inguraturik.



2. Argazkia: Granulita basikoa. Oropiroxenoak (oxp), partzialki edo erabat aldatuak anfibol sekundariotara (anf 2), magnetita sekundarioa (magnet), eta eskapolita (scap) plagioklasak (plag) inguruzten.



3. Argazkia: Granate hipidiomorfikoa (Gt I), anfibol primarioa (anf 1). piroxenoa (px) eta biotita (Bi) granulita basiko batetan.



4. Argazkia: Lherzolita batetako klinopiroxenoen (kpx) exsoluzioak oropiroxeno (oxp) handi batetan.

Plagioklaca, batezbesteko  $An_{50-55}$  konposizioarekin, eskapolitara aldatua agertzen da ertzetatik zehar eta batzutan guneetatik ere (2. Argazkia). Granatea bi modutara agertzen da, 1) granate I idiomorfoa, matrizatik sakabanatua, zerbait zonatua (Mn-z aberasten da ertzearantz) eta frakturetan biotita cekundario, eskapolita, anfibol berde eta opakuetara alteratuta dagoena. Granate hauen guneetako batezbesteko konposaketa  $Alm_{62.3} \text{Pir}_{19.3} \text{Gros}_{14.6}$   $Esp_{3.8}$  da eta ertzetakoa  $Alm_{64.4} \text{Pir}_{17.2} \text{Gros}_{14.6}$   $Esp_{3.7}$  (II Taula); 2) granate II, kristal koronitikotan agertzen da, oropiroxeno/plagioklasa edo opakulplagioklasa elkarfaseetan garatua. Granate I-ekin konparatzen bada, hauen konposaketa Ca-z aberatsagoa da eta Fe-z txiroagoa, guneetako batezbesteko konposaketa  $Alm_{56.9} \text{Pir Gros}_{20.1} \text{Esp}_{3.1}$  da (II Taula). Oropiroxenoak (hiperstena), izaten dira deformazio plastikoaren aztarnak aurkezten dituzten mineral bakarrak (2.

Argazkia). Hauen batezbesteko konposizioa  $En_{40.8} \text{Fs}_{57.6} \text{Wo}_{1.6}$  da (III Taula eta 3. Irudia) baina askotan kummingtonita anfibolera aldatuta egoten dira. VIELZEUF-ek (1984). Piriniotan analizatutako oropiroxenoekin konparatzen badira, aipa daiteke Ca eta Ti-a kantitate altuagotan agertzen direla hemen. Honen interpretazioa Ziga aldean metamorfismoak T altuagoa lortu duela izan daiteke, klinopiroxenoen (salita Al-z joria) batezbesteko konposizioa  $En_{22.5} \text{Fs}_{19.2} \text{Wo}_{58.3}$  da (III Taula) hauetan ere beste anfiboletarra alteratutaazaltzendirelarik. VIEUEUF-ek (1984) Piriniotan analizatutakoak baino aberatsagoak dira Al, Ti eta Mg (batezbesteko mg = Mg/Mg + Fe = 68.15) elementuetan.

Mota desberdinak anfibolak daude, 1) marroi primarioak, pargasitikoak, eta 2) sekundarioak, oropiroxeno, klinopiroxeno eta anfibol primarioetatik

Lagina	1a/e	1a/g	2-4/r. I.	2-4/e.I.	SN/e.I	SN/g.I.	2-4/. II	2-4/g.II
SiO <sub>2</sub>	38.66	39.00	38.62	39.20	37.85	38.03	37.78	37.91
Al <sub>2</sub> O <sub>3</sub>	22.89	23.37	22.09	22.53	22.15	21.71	22.65	21.80
TiO <sub>2</sub>	—	0.15	0.21	0.03	—	0.09	0.08	0.09
Cr <sub>2</sub> O <sub>3</sub>	—	0.06	0.13	0.07	—	—	—	0.27
FeO	28.79	24.82	25.01	24.02	28.98	30.11	25.75	26.07
MnO	0.81	0.31	1.10	1.11	1.84	1.46	1.33	1.43
MgO	7.71	10.87	6.44	7.10	4.54	3.90	4.92	4.93
CaO	1.21	1.61	6.54	6.39	4.79	4.86	7.37	7.42
<b>Guztira</b>	<b>100.07</b>	<b>100.27</b>	<b>100.18</b>	<b>100.45</b>	<b>100.21</b>	<b>100.16</b>	<b>99.93</b>	<b>99.95</b>

Kalioiak O: 12 erlazioan oinarriturik

Si	2.981	3.007	2.978	3.023	2.918	2.932	2.949	2.969
Al (IV)	0.019	0.000	0.022	0.000	0.082	0.068	0.051	0.031
Al (VI)	2.062	2.124	1.986	2.048	1.932	1.906	2.033	1.981
Fe	1.857	1.601	1.875	1.604	1.869	1.942	1.681	1.708
Mg	0.886	1.249	0.740	0.816	0.522	0.448	0.573	0.575
Ca	0.100	0.140	0.540	0.528	0.396	0.402	0.617	0.623
Mn	0.053	0.020	0.072	0.072	0.120	0.095	0.088	0.098
Alm	64.12	53.18	54.39	52.24	64.30	67.26	56.86	56.92
Pir	30.60	41.51	24.96	27.51	17.95	15.52	19.39	19.17
Gros	3.45	4.64	18.22	17.80	13.62	13.91	20.64	19.64
Esp.	1.83	0.67	2.42	2.44	4.13	3.30	2.97	3.25

Burdin osoa, FeO bezala


1 a: granulita azidoa; 2-4, SN; granulita basikoak; e: ertzak, g: guneak, I: Granate-I, II: Grante-II (granata koronitikoa).

II Taula: Granateen konposizio kimikoak

eratorriak direnak. Lehenengo konposizioa ferropargasita eta magnesio-hastingsita tartean kokatzen da (III Taula eta 4. Irudia) Si-aren kantitateak nahiko konstante irauten du, mg erlazioa 32% eta 79.5% balioen tartean dagoen heinean. Bigarrengoan konposizioak aldakorragoak dira, hots, hornblenda aktinolitikotik, hornblenda ferroaktinolitikoa ferrohornblenda edo aktinolita, Kummingtonitaraino (III Taula eta 4. Irudia). Biotita primarioa, flogopitikoa, lagin batzutan oso ugaria izaten da, apatitoarekin batera (3. Argazkia). Biotita sekundarioa granateen frakturetan agertzen da. Errutiloa ez da oso ugari. Opakuen artean ere bi mota bereiz ditzakegu: tamainu handikoa, matrizan sakabanatua, ilmenita konposiziokoa eta bestalde opaku txikiak, ferromagnesianoen inguruetaan kokatzen direnak eta konposizioz magnetitak direnak. Epidota, hausturak betetzen azal daiteke, edo bestela habitu koronitikoarekin, granatea bezalaxe. Guzti hauetaz gain prehnita eta klorita egoten dira.

### Eboluzio metamorfikoa

Lehenengo fase metamorfiko batetan, granuliten faziean, hurrengo asoziazio egonkorra lortuko litzateke: plagioklasa - granate I - ortopiroxeno - klinopiroxeno ± anfibol marroia ± biotita. Granate koronitikoa (granate II) etapa honen ondoren gertatutako birkristalizazioagatik (oraindik granuliten faziean) sorteraz zitekeen edo granate I motakoekin batera. Ondoren, erretromorfosiak anfibol sekundarioak, klorita, magnetita eta epidota garatuko lituzke, presio eta tenperaturaren gutxitzearekin eta  $\mu\text{H}_2\text{O}$ ren gehitzearekin, anfiboliten fazietik pasatuz, azkenean eskisto berdeetako faziera heldu arte. Eskapolita eta prehnitaren agerpena  $\mu\text{CO}_2$ -ren gehitzearekin erlazionatzen da orogenesi Alpetarraren bitartean, inguruko arrokak karearri Mesozoiko metamorfizatuak bait dira.



3. Irudia: Piroxenoen sailkapen kimikoa POLDERVAART & HESSEN arabera (1951). Irukiak: granulitak, zirkuloak: lherzolitak.

## Geokimika

Granulita basiko mota biak analizatu dira (I Taula) eta lehenengoak, hau da, piroxeno eta plagiokialsaz aberatsa dena (Z10C lagina), Mg eta Ca gehiago ditu, bere konposizio normatiboa koartz-toieita delarik. Bigarrenak, granate eta biotitz aberatsa dena (C10 lagina), Al eta alkali gehiago ditu eta konposizio normatiboa basalto alkalinoari dagokio. Lur arraroen (REE) analisietan ere desberdintasunik badago, horrela lehenengoak (Z10C), lurarraroen (REE) kopurua askoz ere txikiagoa du bigarrenak baino (2. irudia), Eu elementuan anomalia positiboa edukitzearrekin bereizten delarik. Honek adierazten duena zera da, olibino eta piroxenoen pilatze-prozesua eta kanporatzea magma toleitikoaren frakzionazioaren lehenengo etapatan. Bestalde, bigarren motak, C10, lur arraroen (REE) kopuru altuagoa erakusten du, frakzionazorik ez, eta lur arraro arinen (LREE) aberasprena. Gauza guzti hauengatik magma basikoaren goranzko bidean inguruko materialekin kutsatu zeia pentsa daiteke.

## 3. MIGMATITAK

Leitzako Failari loturiko arroken artean hauek dira agermendu handiena erakusten dutenak, hamarka metro batzutatik ehundaka metro batzutarako ezkatatan azaitzen direlarik Labaien-etik gertu (1 irudia). Geruza edo banda argiak, koartz eta feldespatoz aberatsak direnak, tamainu desberdinetaikoak izaten dira eta batzutan mobilizatu hauek tolesturik ere agertzen dira. Gorputz granitikoien injekzio dekametrokoak azaltzen dira, fenomeno honek sakonera handiago batetan (orain ezin ikus daitekeena) fusioa importanteagoa izan dela adierazten duelarik. Mineralogikoki migmatita pelitiko arruntak dira. Leukosoman, koartzak, mikroklinak eta oligoklasak, kristal poikilitikoak eratzen dituzte, biotita, sillimanita, eta opakuen inklusio ugari edukitzen dituztelarik. Inklusio hauek fusio partziala delako prozesuan

urtu gabe geratu diren mineralak adierazten dute. Leukosomako alteraziozko mineralak serizita eta mika zuria izaten dira. Mesosoman hurrengo mineralak agertzen dira: biotita eta moskobita orientatuak, sillimanita (batez ere fibrolita) eta arraroago andaluzita, serizitara aldatua egon daitekeena, zirkon eta opakuak biotitaren barne, errutiloa (batzutan orientatua), eta azkenik grafitoa nahiko ugaria eta esquistitatearen arabera orientatua. Biotita flogopitikoak da arroka hauetan ere, Al<sup>IV</sup>, K eta Ti kantitate altutan ditu, baina azken hau ez da izaten granulitean bezain altua.

## Eboluzio metamorfikoa

Arroka hauen asoziazio primarioa Koartz-plagioklasa-feldespato potasikoa-moskobita-biotita-sillimanita/andaiuzita-errutiooa-grafito da, gradu altuko anfiboliten fazieari dagokiona. Ondorengo garapen erretromorfikoa granulitena bezaiakoa da, hots, presioa eta tenperatura gutxitzen dihoaz,  $\mu\text{H}_2\text{O}$  gehitzen den bitartean, azkenik eskisto berdeetako faziearen baldintzak lortzen diren arte.

## Geokimika

Analizaturiko laginaren konposizioa granito sodoikoarena da (i Taula).  $\text{SiO}_2$ , K eta Na/Ca erlazioa azkoz ere altuagoak ditu granulita azidoak baino eta bestalde Fe, Mg, Ca, trantsizio elementuetan eta Barrioan askoz ere kantitate gutxiago. Granulita azidoen protolitoa granodiorita izatea eta migmatitena, aldi, granitoa izatea, alde batetik, funditu ziren hasierako protolitoen izaera desberdinekin erlazona daiteke, hau da, migmatiten kasuan metasedimentuz aberatsagoak izango lirateke (grafitoa egoteak sugeritzen duen bezela) eta bestalde fusio partziala P-T baldintza desberdinatan gertatzearrekin erlazona daiteke, alegia, sakonera handiagoan granulita azidoetarako (feldespato K - granate asoziazioa) migmatitetarako baino (sillimanita-feldespato K asoziazioa).

## 4. ARROKA ULTRAMAFIKOAK

Lherzolitak aurkitu dira, batez ere, Zigatik gertu, hamarka metrotako agermenduarekin (1 irudia). Badago beste arroka ultrabasiko bat, Zozaiatik gertu aurkitua, oso alteratuta azaltzen dena eta jatorrian ortopiroxenita edo harzburgita bat zegokiona. Arroka hauetako itxura bretxoidea dute, kaltzitaz beteriko frakturnaz josiak agertzen bait dira. Mikroskopikoki ehundura porfiroklastikoa azaltzen dute, klinopiroxeno, ortopiroxeno, olibino, eta espinelaren hondarrekin, batez ere serpentina eta karbonatoz osoturiko matrizean sartuta. Minerale primario hauek deformazio plastikoa agertzen dute askotan, ondorengo deformazio kataklastikoaren aurretik. Klinopiroxenoa diop-

sidoa da (Cr elementuan aberatsa) batezbesteko konposizioa  $\text{En}_{46.3} \text{Fs}_{2.5} \text{Wo}_{5.11}$  delarik (III Taula, 3 Irudia), Al, Ti eta Cr/Al erlazioa MONCHOUXEK (1970) eta CONQUER & FABRIESEK (1984) Lherz eta Frechinèden ikertu zituzten Iherzoliten antzekoak dira. Mg erlazioa ( $\text{mg} = \text{Mg}/(\text{Mg} + \text{Fe})$ ) nahiko altua da (94.4) olibino eta ortopiroxenoena bezala, baina minerala bi hauekiko erlaziorik ez da aurkitzen. Ortopiroxenoa enstatitikoa da, eta klinopiroxenoen exsoluzioak edukitzentzu ditu (Argazkia). Batezbesteko formula  $\text{En}_{88.7} \text{Fs}_{9.8} \text{Wo}_{1.5}$  da (III Taula, 3. Irudia) mg erlazioa 89.9 delarik. Olibinoa forsteritaz oso aberatsa da ( $\text{mg} = 89.9$ ) eta piroxenoak bezala oso frakturatuta eta serpentina ± karbonatoetara alteratuta agertzen da. Espinela berde-marroia izaten da, pikotita konposiziokoa eta ertzetara ilunduta agertzen da Cr eta

Fe elementuetan joritzan bait da. Mineral hauetaz gainera, dudarik gabe primarioak, anfibol marroia hastingsita magnesikoaren eta hornblenda magnesio-hastingsitikoaren arteko konposiziokoa azaltzen da, zeina primarioa izan bait zitekeen. Anfibol «primario» hauen mg erlazioa nahiko altua izaten da (86 baino altuagoak). Anfibol sekundarioak beste ferromagnesianoen alterazioz sortutakoak dira eta hauen konposizioa aldakorra da, hornblenda edenitikoa, hornblenda tremolitikotik tremolitara edo kummingtonita, azken hau ortopiroxenoen erretromorfosiagatik sortzen delarik (III Taula eta 4. Irudia), Ti, Na, K,  $\text{Al}_{\text{OSOA}}$  eta  $\text{Al}^{\text{IV}}$  kantitateen arabera (SPEAR, 1980, 1981a, 1981b) anfibol primario hantingsitikoak Taltuagoan eratu dira anfibol sekundario edenitikoko baino eta hauek, tremolitikoak baino.

Lagina	1 b/o	2-4/0	11 b/k	2-4/k	2B	11c	2-4I	Z10C
$\text{SiO}_2$	54.98	50.47	51.85	49.70	44.62	52.66	41.26	49.03
$\text{TiO}_2$	0.15	0.13	0.57	0.79	13.16	5.34	14.25	5.41
$\text{Al}_2\text{O}_3$	4.37	3.18	6.83	4.15	5.70	3.43	-	4.28
$\text{Cr}_2\text{O}_3$	0.27	0.13	0.76	0.12	-	-	11.43	16.33
$\text{Fe}_2\text{O}_3$	0.41	0.47	0.61	1.86	18.51	21.44	11.04	10.03
FeO	6.04	25.76	1.68	8.72	12.19	12.45	11.85	11.44
MnO	0.09	0.54	0.14	0.30	3.17	1.07	1.67	1.02
MgO	32.89	18.46	14.34	11.38	0.46	0.05	2.08	0.23
NiO	0.13	-	-	0.01	0.18	0.30	4.23	0.31
CaO	0.54	0.78	22.14	21.84	0.66	0.01	0.12	0.18
$\text{Na}_2\text{O}$	0.06	0.03	1.46	0.60	0.26	0.66	-	0.03
$\text{K}_2\text{O}$	0.01	0.04	-	0.02	0.18	0.04	0.09	0.09
<b>Guztira</b>	<b>99.94</b>	<b>99.99</b>	<b>100.38</b>	<b>99.49</b>	<b>99.09</b>	<b>97.45</b>	<b>98.15</b>	<b>98.35</b>

Proportzio kationikoak


Si	1.900	1.918	1.871	1.879	6.249	7.284	6.081	7.,269
Al (IV)	0.100	0.082	0.129	0.121	1.751	0.716	1.919	0.731
Al (VI)	0.078	0.061	0.162	0.064	0.421	0.155	0.556	0.214
Ti	0.004	0.004	0.015	0.022	0.019	0.031	0.469	0.035
Fe <sub>3</sub> +	0.01	0.013	0.017	0.053	0.601	0.357	-	0.478
Fe <sub>2</sub> +	0.175	0.819	0.051	0.276	-	-	1.409	2.024
Cr	0.007	0.004	0.22	0.004	0.029	0.072	0.015	-
Mn	0.003	0.017	0.004	0.010	0.078	0.001	0.015	0.023
Mg	1.694	1.046	0.771	0.641	3.864	4.420	2.425	2.216
Ni	0.004	-	-	-	0.020	0.004	0.011	0.011
Ca	0.020	0.032	0.856	0.885	1.829	1.845	1.871	1.817
Na	0.004	0.002	0.102	0.044	0.861	0.287	0.477	0.293
K	-	0.002	-	0.001	0.082	0.009	0.391	0.043

 $\text{Fe}_2\text{O}_3$  kalkulatua

11b, Burdin osoa FeO bezala

1a: granulita azidoa; 2-4, SN; granulita basikoak; e: ertzak, g: guneak, I: Granate-I, II: Grante-II (granata koronitikoa).

III Taula: Piroxeno eta anfibolen analisi kimikoak



4. Irudia: Anfibolen sailkapen kimikoa, LEAKEren arabera (1978). A eta B: Iherzolitetako anfibolak, C, D eta E: granulitetako anfibolak, irukia anf. primarioak, zirkulo belrzak: anf. sekundarioak.

Klinopiroxenoen Cr eta Na kantitateen arabera eta KORNPROBSEN (1981) sailkapena jarraituz, Zigaiko lherzolitak mantu subkontinentaleko zatiei dagoie edo zehatzago esanda, arroka hauetek espineladun lherzolita mantu subkontinentaleko motatakoak dira.

### Eboluzionetamorfikoa

Arroka hauen asoziazio primarioa klinopiroxeno - ortopiroxeno - olibino - espinela  $\pm$  anfibola izango litzateke, kontutan arturik anfibolak primarioak izan daitezkeela. Honen ondoren erretromorfosia gertatzen da kataklasiarekin batera, eskisto berdeetako faziea lortu arte.

### METAMORFIMOAREN PRESIO ETA TENPERATUR BALDINTZAK

Arrokak zein baldintzatan eratu diren jakiteko, datu analitikoak eta zenbat geotermometro eta geobarometro erabili dira.

Granulita azidoetarako hurrengo geotermometroak erabili dira: Granate-biotita (THOMPSON, 1976; HOLDWAY & LEE, 1977; FERRY & SPEAR, 1978; INDARES & MAFITIGNOLE, 1985), granate-kordierita (CURRE, 1971; HOLDWAY & LEE, 1977), eta kordierita-espinela (VIELZEUF & ANDRIEUX, 1984). Emaitza nahiko aldako-

rak atera dira, baina geotermometro bakoitzak dituen konposizio-mugak ikusi ondoren, soberenak hautatu dira eta etapa granulitikorako lortutako tenperaturarik altuena 750-800°C izan da. Presioa ezaugzeko granate-kordierita bikotea erabili da (CURRIE, 1971) eta aurreko tenperatura onarturik lortzen den presioa 7-8.5 Kb-etakoa da. Konparatzen badugu emaitza hau VIELZEUFek Piriniotan eta antzeko arroketan lortu dituenekin, metamorfismo granulitikoan lorturiko presiorik altuena bezala kontsideratu beharko genuke datu hau.


Granulita basikotarako geotermometro hauetako erabili dira: granate - klinopiroxeno (ELLIS & GREEN, 1979; DAHL, 1980), granate-ortopiroxeno (DAHL, 1980), ortopiroxeno-klinopiroxeno (WOOD & BANNO, 1973; WELLS, 1977), granate-biotita (granulita azidoetarako erabili den berbera), granate-hornbleda (GRAHAM & POWELL, 1984), plagioklasa-anfibol (SPEAR, 1981) eta ilmenita-piroxeno (orto eta klinopiroxeno) (BISHOP, 1980). Granulita azidoetarako bezala emaitza aldakorrak lortu dira, baina dispersio minimoa zutenak hautaturik metamorfismo granulitiko altuena 800°C ingururaino heldu da. Datu hau ados dago granulita azidoetarako lortu denarekin, baita VIELZEUFek Piriniotan, antzeko arroketarako eman dituen datuekin ere. Arroka hauen presioa ezaugzeko granate-ortopiroxeno-plagioklasa-koartzo

(NEWTON & PERKINS, 1982), grante-klinopiroxeno-plagioklasa-koartzo (VIELZEUF & ANDRIEUX, 1984) eta anfiboletako Ti kopurua (RAASE, 1974) erabili dira geobarometrotzat eta lorturiko presiorik altuena 7 Kb-etakoia izan da. RAASEREN metodoak emandako informazioa anfibol sekundarioen eraketari buruzkoa izan da eta honek dioenez, eta AlIV-Si diagramak erabiliz, anfibol hauetako 5 Kb-etatik behera eratu dira, anfibolituen faziean (5. Irudia).

Lherzoliten baldintzak ezagutzeko beste geotermometro hauetakoak erabili dira: olibino-espinela (FABRIES, 1979), ortopiroxeno-espinela (TABOUT et al., 1986), espinelaren Si kantitatea (BERGER eta al., 1984), olibino-ortopiroxeno (BERGER & VANNIER, 1978), eta ortopiroxeno-klinopiroxeno (WOOD & BANNO, 1973; WELLS, 1977; MERCIER, 1980; HEWING & SMITH, 1980). Lorturiko tenperatura batzu altuegiak izan dira ( $1300^{\circ}\text{C}$ ) eta pentsa daiteke geotermometroaren edo/ta analisien akatsa izan dela. Tenperatura baxuagoak ere lortu dira,  $1000^{\circ}\text{C}$ -tik  $600^{\circ}\text{C}$ -tara, birkristalizazio anfibolitikoei dagozkienak batez ere. Azkenik, onartu daitekeen balio bakarra MERCIEREN (1980) geobarometroak eman duena da: 19 Kb  $900^{\circ}\text{C}$  takoa tenperaturarako. Dena den, presio hau kontutan hartu beharko genuke goi mugakoa bezala, tenperatura  $800\text{-}1000^{\circ}\text{C}$  tarterako, zeren eta, presioaren balio hau espinela duten peridotiten egon-kortasunaren goiko muga izango bait litzateke (LANE & GANGULY, 1980). CONQUERE & FABRIESEK lortu dituzten balioak Lherz-eta Frechinède-ko arroka ultramafikotarako baxuagoak dira:  $950^{\circ}\text{C}$  eta 13-15 Kb.

## KONKLUSIOAK

Leitzako Failari loturik agertzen diren arrokak, metamorfismo prealpetarra pairatu zuten. Metamorfismo honek granuliten faziearen baldintzak lortu zituen, tenperatura bitartekoa-altua (biotita egonkorra) izan zelarik. Lehen fase honen ondoren erretromorfosi-fasea gertatzen da, anfibolituen fazietik eskisto berdeetako faziera doalarik, batez ere. Metamorfismo granulitikoa bitarteko presioak izan zen, eta lorturiko baliorik altuenak 7 Kb eta  $800^{\circ}\text{C}$  inguruak izan ziren. Emaitsa hauetako Piriniotako mazizo eta ezkata tektoniko desberdinaren erdietsi diren balioen berdintsuak dira (Lherz, Saleix, Agly, Bessède de Sault, e.a., ANDRIEUX, 1982; VIELZEUF, 1984), beraz, Ziklo Hertziniarrarekin erlaziona daitezke (POSTAIRE, 1982). Ondorengo metamorfismo Alpetarrak, eskanpolita, prehnita, anfibol sekundarioak, beste batzuren artean, ematen ditu eta metamorfismo honen baldintzak presio baxukoa eta tenperatura bitarteko-altukoak dira ( $500^{\circ}\text{C}$  eta presioa 5 Kb-etik behera, HIETANEN, 1967; KWAK, 1977).



5. Irudia: AlIV - Si diagrama granulita basikoen anfiboletarako (RAASE, 1974). Irukiak anfibol primarioak, zirkuloak: a. sekundarioak.

Granulita azidoak granodiorita konposizioko protolito igneo baten birkristalizazioagatik sortuko lirateke. Magma granodioritikoaren jatorria lurrazaleko material, batez ere, metasedimentarioen fusio partzialean egongo litzateke. Bilakaera paragenetikoa aztertz, fusio partzial prozesu hau bi fasetan eman zitekeen: lehena bitarteko presioa/tenperatura baxua baldintzeko granuliten faziean eta bigarrena, granuliten faziean ere baina presio baxuagotan eta tenperatura altuagotan gertatuko litzatekeena (kordierita eta beharbada espinela). Lehen etapa hau metamorfismo erregionalaren garapenarekin erlaziona daitetik, eta bigarrena aldiz, altzatze etapa batekin, magma basikoen intrusioengatik lagundua izango baitzen. Magma basikoa hauetako (toleitikotik basalto alkalinorako konposiziokoak) distensio/altzatze-etapa honekin eratuko ziren, eta berauek izango lirateke granulita basikoen protolito igneoak. Eredu hau onartzen badugu, arroka migmatitikoak fusio partzialaren etapa bat izango lirateke, baina sakonera txikiagoan emango zena, fundidu granitikoak granodioritikoaren ordez egoteak adierazten duen bezala. Granitoide mota desberdinak migmatitei loturik agertzeak (bi mikatako granitoak, leukogranitoak, pegmatitak, e.a.) bitarteko maila bat dagoela adierazten du, non fusio partzialaren gradua migmatitena baino altuagoa bait da.

Lherzolitei dagokionez, oso berdintsuak dira Piriniotan agertzen diren lherzolitekin (Lherz, Saleix, e.a.) Arroka hauetako hain bretxatuak eta serpentinizatuak daude, pairatu duten eboluzioa ezin dela era bat baiezztatu.

Azalduriko datuekin zera esan genezake, Leltzako Failari lotuta agertzen diren arroka metamorfiko prealpetarrak eta Faila Ipar-Pirinaikoari lotuta eta mazizo Ipar-Pirinaikoan agertzen direnak berdintsuak dira. Ikertutako eskualdean arroka hauetako metamorfismo maila desberdinak erakusten dituzte eta honek aditzera ematen duena zera da, jazokuntza metamorfiko prealpetar nagusiaren ondoren Failaren aktibitatearen ondorioz zatituko zen mazizo hertziniar batzen zatiak izan daitezkeela.

## ESKERRAK

Eskertu nahi nioke Iñaki GIL IBARGUTXIRI (Euskal Herriko Unibertsitateko) lanaren zuzendaria izateagatik. D. VIELZEUF, (Clermont-Ferrand-eko Unibertsitateko), Zigako granulita basikoen lagin batzu emateagatik. Hasiera batetan WALGENWITZK 1976.ean hartu zituen lagin hauek, gaur egun estalirik dagoen harrobi batetatik. Halaber, MARTINEZ-TORRESI (Eusko Herriko Unibertsitateko) lekuo mapa geologikoak uzteagatik.

## BIBLIOGRAFIA

- ALBARREDE, F. & MICHAUD VITRAC, A.
- 1978 *Age and significance of the North Pyrenean metamorphism. Earth. Planet. Sci. Lett.* 40,327-332.
- ANDRIEUX, P.
- 1982 La chanockte d'Ansigan (Massif de l'Aigle, Pyrénées Orientales): Mise en place et évolution paragénétique. Introduction à l'étude des équilibres grenatorthopyroxéme. *These 3ème cycle. Université de Clermont-Ferrand*, 109 pp.
- AZAMBRE, B. & RAVIER, J.
- 1978 Les écailles de gneiss du facies granulite du Port de Saïx et de la région de Lherz Ariège). Nouveaux témoins du socle profond des Pyrénées. *Bull. Soc. Géol. Fr. XX*, 3, 221-228.
- BERGER, E. & VANNIER, M.
- 1978 Un géothermomètre reposant sur le partage du Nickel et du Magnésium entre olivine et orthopyroxwmw. *C.R.Acad. Sci. Paris, T. 286, série D*, pp. 733-736.
- BERGER, E., LEHMAN, J., MARION, C. & VANNIER, M.
- 1984 La teneur en silicium des spinelles de péridotites: un géothermomètre très précis. *9ème R.A.S.T, Pris. Soc. Geol. Fr. édit Paris*.
- BISHOP, F.C.
- 1980 The distribution of Fe<sup>2+</sup> and Mg between coexisting ilmenite and pyroxene with applications to geothermometry. *Am. J. Sci.* 280, 46-77.
- CHOUKROUNE, P.
- 1970 Contribution à l'étude structurale de la zone métamorphique nord-pyrénèenne. Tectonique et métamorphisme des formations secondaires de la forêt de Boucheville (P.O.) *Bull. B.R.G.M.* 4, 46-63.
- CHOUKROUNE, P.
- 1974 Structure et évolution tectonique de la zone nord-pyrénèenne. Analyse de la déformation dans une portion de la chaîne à schistosité sub-vertical. *Thèse d'Etat, Montpellier*, 276 pp.
- CONQUERE, F. & FABRIES, J.
- 1984 Caractères pétrographiques et chimiques des péridotites à spinelle des gisements ultramafiques de Lherz et de Freychinède (Ariège, Pyrénées Françaises). *Ann. Sci. Univ. Clermont-Ferrand II*, 74, 55-83.
- CURRIE, K. L.
- 1971 The reaction 3 cordierite = 2 garnet + 4 sillimanite + 5 quartz as a geological thermometer in the Opinikon Lake Region, Ontario. *Contr. Min. Petrol.* 33, 215-226.
- DAHL, S.
- 1980 The thermal-compositional dependance of Fe<sup>2+</sup>-Mg distributions between coexisting garnet and pyroxene: applications to geothermometry. *Am. Miner.* 65, 854-866.
- EGUILUZ, L., GARROTE, A. y LLANOS, H.
- 1982 El metamorfismo de los materiales mesozoicos en la prolongación occidental de la Falla nordpirenaica (sector de Leiza, Navarra). *Bol. Soc. Esp. Min.*, 6, 81-91.
- ELLIS, D. J. & GREEN, D. H.
- 1979 An experimental study of the effect of Ca upon garnet-clinopyroxene Fe-Mg exchange equilibria. *Contr. Min. Petrol.* 71, 13-22.
- FABRIES, J.
- 1979 Spinel-olivine geothermometry in péridotites from ultramafic complexes. *Contr. Miner. Petrol.* 69, 329-336.
- FERRY, J. M. & SPEAR, F. S.
- 1978 Experimental calibration of the partitioning of Fe and Mg between biotite and garnet. *Contr. Min. Petrol.* 66, 113-117.
- GRAHAM, C.M. & POWELL, R.
- 1984 A garnet-hornblende geothermometer calibration, testing and application to the pelona Schist, Southern California, *J. Metam. Geolog.* 2, 13-31.
- GRANT, J.A. & WEIBLEN, P. W.
- 1971 Retrograde zoning in garnet near the second sillimanite isograd. *Am. Jour. Sci.* 270, 281-297.
- HERVING, R. L. & SMITH, J. V.
- 1980 Sodium thermometer for pyroxenes in garnet and spinel Iherzolites. *Jour. Geol.* 88, 337-342.
- HIETANEN, A.
- 1967 Scapolite in the Belt Series in the St. Joe - Clearwater County, Idaho. *U.S. Geol. Surv. Prof. Pap.* 344-D.
- HOLDAWAY, M. J. & LEE, S. M.
- 1977 Fe-Mg cordierite stability in high-grade pelitic rocks based on experimental, theoretical and natural observations. *Contr. Min. Petrol.* 63, 175-198.

- INDARES, A. & MARTIGNOLE, J.
- 1985 Biotite-garnet geothermometry in the granulite facies: the influence of Ti and Al in biotite. *Am. Miner.* 70, 272-278.
- KORNPROBST, J.
- 1981 Na and Cr contents in clinopyroxenes from peridotites: a possible discriminant between «sub-continent» and «sub-oceanic» mantle. *Earth. Plan. Sci. Lett.* 53, 241-254.
- KWAK, T.A.P.
- 1977 Scapolite compositional change in a metamorphic gradient and its bearing on the identification of meta-evaporite secuentes. *Geol. Mag.* 114 (5), pp. 343-354.
- LAMARE, P.
- 1936 Recherches géologiques dans les Pyrénées basques d'Espagne. *Mém. Soc. Fr.*, XII, N° 27, 465 pp.
- LLANOS, H.
- 1980 Estudio geológico del borde sur del macizo de Cinco Villas, Transversal Huici-Leiza (Navarra). *Tesis de Licenciatura, UPV/EHU. Eusko-Ikaskuntza*, 1, 79-160.
- MERCIER, J. C.
- 1980 Single-pyroxene thermobarometry. *Tectonophysics*, 70, 1-37.
- MONCHOUX, P.
- 1970 Les Iherzolites pyrénéennes: contribution à l'étude de leur genèse et de leur transformations. *These d'Etat, Toulouse*, 180 pp.
- MULLER, J. & ROGER, P.H.
- 1977 L'évolution structurale des Pyrénées (Domaine central et occidental). Le segment hercynien, la chaîne de fondalpine. *Geol. alpine*, 53/2, 149-191.
- NEWTON, R.C. & PERKINS, D.
- 1982 Thermodinamic calibration of geobarometers based on the assemblages garnet-plagioclase-orthopyroxene (clinopyroxene)-quartz. *Am. Miner.* 67, 203-222.
- POSTAIRE, B.
- 1982 Systématique Pb commun et U-Pb sur zircons. Application aux roches de haut grade métamorphique impliquées dans la chaîne hercynienne (Europe de l'Ouest) et aux granulites de Laponie (Finlande). *Thèse 3ème cycle, Rennes*, 71 p.
- RAASE, P.
- 1974 Al and Ti contents of hornblende, indicators of pressure and temperature of regional metamorphism. *Contr. Min.* 45, 231-236.
- SPEAR, F. S.
- 1980 NaSi = CaAl exchange equilibrium between plagioclase and amphibole. An empirical model. *Contr. Miner. Petrol.* 72, 33-41.
- SPEAR, F. S.
- 1981a An experimental study of hornblende stability and compositional variability in amphibolite. *Am. Jour. Sc.*, 281, 697-734.
- SPEAR, F. S.
- 1981b Amphibole-Plagioclase Equilibria: An Empirical Model for the Relation Albite + Tremolite = Edomite + 4 Quartz. *Contr. Miner. Petrol.* 77, 355-364.
- TABIT, A., KORNPROBST, J. & BOIVIN, P:
- 1986 Repartition de Cr et Al (IV) entre orthopyroxene et spinelle: données expérimentales préliminaires préliminaires et potentiellement géothermométrique. *11ème R.A.S.T., Clermont-Ferrand. Soc. Géol. Fr. Paris*.
- THOMPSON, A. B.
- 1976 Mineral reactions in pelitic rocks: I Prediction of PTX (fe, Mg) phase relations. *Am. Jour. Sci.* 276, 401-454.
- THUIZART, R., MONTIGNY, R., AZAMBRE, B. & ROSSY, M.
- 1985 K-Ar studies on alkaline magmatism and metamorphics from the Pyrenees. *Terra Cognita*. 5:123.
- VIELZEUF, D.
- 1984 Relations de phases dans le facies granulite et implications géodynamiques. L'exemple des granulites des Pyrénées. Tome I. *Anales Scientifiques de l'Université de Clermont-Ferrand II*.
- VIELZEUF, D., & ANDRIEUX, P.
- 1984 Calibration d'un thermomètre cordierite-spinelle et d'un baromètre grenat-orthopyroxène-clinopyroxène-plagioclase-quartz. *10ème RAST, Bordeaux, Soc. Géol. Fr. éd.* 541 pp.
- WALGENWITZ, F.
- 1976 Etude pétrologique des roches intrusives triasiques, des écailles de socle profond et des gîtes de chlorite de la région d'Elizondo (Navarre Espagnole). *These 3ème cycle, Besançon*, 172 pp.
- WELLS, P. R. A.
- 1977 Pyroxene thermometry in simple and complex systems. *Contr. Miner. Petrol.* 62, 129-139.
- WOOD, B. J. & BANNO, S.
- 1973 Garnet-orthopyroxene-clinopyroxene relationships in simple and complex systems. *Contr. Miner. Petrol.* 42, 109-124.